



Ausarta joskina!!!

Kontzertu didaktikoa ganbera-orkestrarako eta bi narratzailetarako

Musika: Tibor Harsányi

Interpretatzaileak: Pablo Sarasate Kontserbatorioko ikasle eta irakasleak.

Gida didaktikoa eta jatorrizko ipuinaren egokitzapena: **“Pasadas las 4”**

Gaztelaniazko narratzaileak: Belen Otxotorena eta Inma Gurrea

Euskarazko narratzaileak: Izaskun Mujika eta Patrizia Eneritz

Itzulpena euskarara: Asis Arbide

Joskin ausarta ipuina alemaniarren ahozko herri-literaturatik berreskuratu zuten Grimm Anaiak. Jatorrizko ipuinak kontatzen zuenez, joskin batek mermelada pote bat erosi omen zuen eta, euliak hara biltzen zirela ikusita, haietako zazpi hil omen zituen kolpe bakar batez. Joskinaren irudikoz, kontatzeko moduko balentria zen hura eta gerriko batean josi omen zuen honako esapide hau: ZAZPI ZARTAKO BATEZ! Eta mundua korritzera joan omen zen, jende guztiak jakin zezan bere balentriaren berri. Kontua erregearengana ere iritsi omen zen, eta joskina ekarrarazteko agindu omen zuen. Eraman ziotelarik, bere ausardiaren hiru frogak eman ziezazkion eskatu zion gazteari. Ordainetan, erregearen alabarekin ezkonduko zen, eta bere erresumaren erdia emanen zion erregeak. Azkenean, hiru frogak gainditu omen zituen joskinak, eta erresumaren oinordeko bihurtu zen.

Tibor Harsányi da musikaren egilea.

Tibor Harsányi (1898-1954) hamar urte eskas zituela sartu zen Budapesteko Musika Akademian.

Aurrerago pianista handia izanen zen hark maila altuko musikariak izan zituen irakasle, besteak beste, Zoltán Kodály eta Béla Bartók, luxu handiko aukera, inondik ere, gazteak alferrik galdu ez zuena. Tibor ipurterreak



bidaiari sena zuen eta, hogeita hiru urte zituela jiran abiatu zen, zuzendari eta pianista gisa, Venezia, Berlin, Amsterdam eta Ozeano Barean barrena. Azkenean, bere bizilekua izanen zen hirira iritsi zen: Parisera, hain zuzen. Hiri eder horretan elkartu zen beste hainbat musikagilerekin, eta "Parisko Eskola" taldea sortu zuten.

Une hartatik aurrera, era guztietako musikak konposatzeari ekin zion: opera, baleta, ganbera, pianoa... Haren inspirazio iturriak bere jatorrizko herriko kantuak, Igor Stravinsky errusiar musikagile handia eta Europan agertu berria zen jazz musika ziren.

Zoritxarrez, ehunetik gora musika-lan konposatu bazituen ere, ia ez dira interpretatzen gure auditorio eta musika-aretoetan. Hala ere, haren *Joskin ausarta* lana ohikoa da *familia eta eskola kontzertu* hauen erreperatorioan, eta historiara iraganen da inspirazio, testuaren egokitzapen eta musika-egitura perfektuaren eredu gisa.

Harsányik aukeratutako instrumentuak:

Gure ganbera-orkestra zortzi musikaririk osatzen dute (Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioko ikasle eta irakasleak, denak ere).

Eszenatokian izanen diren instrumentuak, berriz, honako hauek dira: pianoa (zuetako batzuek ezagutzen duzue instrumentu hau *Paperezko itsasontzia* eta *Ume-jolasak* bezalako programei esker) txirula, klarineta, fagota, tronpeta, biolina, biolontxelo eta perkusio instrumentu sail bat: tinbalak, triangeluak, danborrak, platera, bonboa, xilofonoa, lira, enbolodun txirula, sirena, temple-blocks...

Ez dakigu musikagileak zergatik aukeratu zituen orkestrako instrumentu hauek eta ez beste batzuk, baina egia dena zera da, jatorrizko ipuinak dituen une desberdinak bikain deskribatzea lortu zuela, eta era bikainean harilkatu zuela guztien sonoritatea.

Instrumentu horietako edozein bertatik bertara ikusteko aukera baldin baduzue, ez galdu, eta bestela, zuen irakasleak lortzen ahal duen edozein ilustrazio edo argazki ere, oso lagungarria izan daiteke.

Qusarta joskina!!! da Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuak Haur

Eskolako ikasleentzat antolatutako Musica en Acción programako ekarpen berria. Grimm Anaien ipuinetik eta Tibor Harsányiren musika zoragarritik abiatuta eratu du Pasadas las 4 taldeak bere ikuskizun musikala, bertan izanen ditugula *Luisa* eta *Marisa* txikienak liluratu beharrez, betiko kontakizun bat inoiz ez bezala kontatuz. Oraingo honetan, ganbera-orkestra bat izanen dute lagun, hori da zortea hori! eta bi artista handi ere bai, euren marrazki eta animazioarekin: Beatriz Menéndez, ilustratzailea eta diseinugile grafikoa, eta Verónica Eguaras, artista diziplinartekoa, 2008an Ikus Arteen INJUVE sari nazionala jasotakoa.

Nola Luisak eta Marisak izan zuten istorio honen berri.

Ilargi beteko gauetan, *Luisak* eta *Marisak* euren zuhaitz begikoa ureztatzeraz ateratzeko ohitura dute. Zuhaitz berezia da, besteen aldean oso desberdina, ehunka urtekoa eta kolore gorri berezikoa, beste planeta batekoa dirudiena.

Oso ongi ezagutzen dute lelo hau Luisak eta Marisak: *"Ez daiteke jakin zer gertatuko den, zuhaitz bat era berezian ureztatzen baduzu"*.

Hortaz, asko pentsatu ondoren, *Akerra ikusi dugu...* kantuarekin ureztatzea erabaki zuten. Kantatzen amaitu eta, fruitu benetan bitxiak ematen hasi da zuhaitza, eta osagai horiek hartuta, *Bixente txikiaren* istorioa josten hasiko dira *Luisa* eta *Marisa*, ausardia handiko joskin gazte hark gogo bizia baitzuen munduari bere balentrien berri emateko.

Jakin nahi al duzue zuhaitz berezi horrek nolako fruituak eman zituen?

Mermelada potea, etxean egindakoa hobea.

Joskin gaztea lasai ederrean ari da josten tailerreko leihoaren ondoan eta, hala ere batean, saltzaille bat agertu da, era guztietako mermelada goxoak eskainiz. Bixente txikiak ez du zalantza izpirik ere: etxean egindako mermelada potea nahi du. Berehalaxe, hura ireki eta ogi xerra handi batean zabaldu du jaki gozoa.

Egia esanda, Bixente txikia gozozale samarra da, baina langile fina eta sormen handikoa ere bai. Leihoaren ondoan jarri ohi da josten, eta oso gustukoa du naturan ikusten dituen gaiak albaintzea, jostea eta adabakietan eranstea; gustukoa du ugaldeto ura atzera-puntadetan jostea, ilunabarrak pasaratzea eta, batez ere, zuhaitzak brodatzea. Egiako artista da jostorratza eskuan duela.

Zuek ere artistak izan zaitezke, bai horixe, baina oihalaren orde papera hartuko dugu, eta jostorratza eta hariaren orde, errotuladoreak, kolorezko klarionak eta gogoko dituzuen margo mota guztiak.

Bixente txikiaren istorioa Luisari eta Marisari kontatzen diena *ehun urteko zuhaitza planetarteko gorri-antza* denez, zuhaitz hori artisten erara lantzea proposatzen dizuegu.

1. Kontua zera da, bi artista oso desberdinen lanetatik abiatuta lan egitea, eta erakutsiko dizkizuegun teknika desberdinekin esperimentatzea. Aukeratutako artistak Vincent Van Gogh eta Gustav Klimt dira.

Vicent Van Gogh (holandar margolari inpresionista, 1853-1890)

Almendra-adarrak loretan, 1890.



Lehenik eta behin, koadroa umeei erakutsiko diegu. Ondoren, kartoi mehe urdina hartu, edo lehenago urdinez pintatutako bat hartu, eta horren gainean, adarrak margotuko dituzte argizari-margoez, kolore ilunez (behealdekoak lodiagoak eta goialdekoak meharragoak). Ondoren, belarriak garbitzeko

ziritxoez, almendra-loreak margotuko dituzte.

Adinaren arabera, lanaren osagarriak izan daitezke koadroaren izenburua idaztea, margolariari buruzko informazioa bilatzea, mugimendu inpresionistari buruzkoa...

Altzifreak, 1889.



Altzifreak izeneko margolana da lanerako proposatzen dizuegun bigarrena. Aurrekoarekin alderatzeaz gain, eta orain ere lehenbizi lasai begiratu ondoren, haren antzekoa egiten saiatuko dira umeak baina, oraingo honetan, plastilinez.

Kartoi mehea hartu eta, zeruaren marra, lurraren marra eta nabarmendu beharreko osagaia, altzifrea, alegia, markatuko ditugu. Ondoren, hiru margo desberdinetako plastilina erabiliko dugu: urdina, berdea eta horia, eta kartoi mehearen gainean zabalduko dugu eskuaz zapalduta, hiru gunek betetzeko. Azkenik, uhinak egingen ditugu zotz txiki batez eta, halaxe, *Van Gogh efektua* lortuko dugu.

Adinaren arabera, margoak nahasten ahal ditugu eta erliebe eta material desberdinez lan egin: paper-orea, arroza...

Gustav Klimt (austriar margolari sinbolista, 1862 -1918)

Bizitzaren zuhaitza, 1905



Koadroa erakutsi ondoren, berau sinplifikatzen eta erdigunea soilik gordetzen saiatuko gara, alegia, zuhaitzari berari dagokiona bakarrik gordetzen. Horretarako, orri zuri bat hartuko dugu eta kafe-esneaz bustiko dugu. Lehortu ondoren, errotuladorea hartu eta ume bakoitzak zuhaitz-ondoa eta adarrak, kiribilduak, margotuko ditu. Jarraian, koadroaren behealdea egingen dugu forma eta kolore desberdinetako paperez, *kollage* teknika erabilita.

2. Bestela, ikasgelako leihotik begiratu eta, gogokoena duzuen aukeratzen ahal duzue eta huraxe margotu koadro zoragarri batean. Dalí beraren pare zuek! Gauza bera egin dezakezue ikaskide batekin, arretaz begiratu eta ondoren, erretratua egin. Bata modeloa izanen da, eta bestea artista. Tintoretok nahi luke! “Bodegoi” bat ere asmatzen ahal duzue, eta ondoren margotu. Cézanne iduri!!!

3. Zer iruditzen zaizue margolaritzatik eskulturara jauzi egiten badugu? Berreskuratutako materialekin: kartoi tutuak, burdin hariak, papera..., *desioen zuhaitza* eraiki genezake. Ondoren, ume bakoitzaren desioak paratuko ditugu zintzilik bertan, fruituen gisara.

Aldaera bat izan daiteke zuhaitz hau *musika-desioen zuhaitza* bihurtzea.

Irakasleak proposamen desberdinak jarriko ditu zintzilik:

- musika-notak, ikasleek horiek jaso eta interpreta ditzaten hartu ahala.
- guztiok ezagutzen dugun kanta baten hitzak nahasirik, umeek kanta aurkitzen saia daitezten.
- erritmo-segida baten tarteak: bi txalo, hiru txistu, lau oin-kolpe..., ondoren interpretatu beharko dituztenak, katea eginez, biribilean jarrita.

4. Lanak amaituta, erakusketa bat egiten ahal dute, ezkaratza museo zoragarria bihurtu eta gainerako ikasleak bertara gonbidatuz.

Eskuz egindako gerrikoā, larruzkoā eta polit askoā.

Nork esanen zion joskinari, bere tailerrean zituen euli guztiek etxean egindako mermelađa dastatu nahi izanen zutela! Hara,bađa, halaxe izan zen. Baina Bixente txikiak ez zuen mermelađa partekatzeko batere asmorik. Gerrikoā hartu eta, zartako latz batez zazpi euli zanpatu zituen. Balentriā gogoangarriā iruditu zitzaion, nonbait, izan ere, gerrikoan josi zuen ondoko esapide hau: ZAZPI ZARTAKO BATEZ! Eta mundua korritzera ađiātu zen, bere auzardiā erakutsi beharrez.

Zazpia zenbaki magikoa da, herri-ipu in askotan agertzen dena, *Edurnezuri eta zazpi ipotxak*, *Zazpi antxumeak eta otsoa...*

Esan dugun moduan, joskinak zazpi euli hil zituen eta, gainera, zazpi ziren, hain juxtu ere, zorioneko gerrikoa egiteko Bixente txikiak tailerrean aurkitu zituen larru zatiak.

1. 1 Eranskinean, Bixente txikiaren gerrikoaren zatiak aurkituko dituzue. Haiek josten saia zaitetze eta... ea nolako gerrikoa egiten duzuen.

Gainera, Bixente txikia zitzu bizian atera baitzen etxetik, ez zen ohartu armairua irekia utzi zuela.

Orain ikusiko duzuenaz, Bixente txikiaren armairua ez dago oso ordenatua. Begira zer dagoen barruan.


1. Txokolate tableta bat
2. Matematika liburua
3. Etxeko zapatilak
4. Hortzetako zepiloa
5. Txaleko bat
6. Zakur bat
7. Amonaren betaurrekoak

2. Biribil batez marka itzazu arroparako armairuan egon behar ez luketen gauzak.

Txikiarentzat, jarduera hau ikasgelan bertan antola liteke: zerrendako materialak hartu, edo beste batzuk, irakasleak egoki deritzenak, eta berezi, armairuan egon behar dutenak eta ez dutenak.

3. Zenbatu itzazu armairuan dauden gauzak. Hara! Txalekoa esekigailutik erori da! Zenbat gauza geratzen dira? Eta zakurrak txokolate tableta jaten badu? Eta, atera baino lehen, Bixentek galtza pare bat erosten badu eta apalategian uzten baditu? Jolas egin dezakezu batuketak eta kenketak egiten gure joskintxoak armairuan gordetzen dituen gauzekin. Bai dibertigarria!

4. Ez duzue sinetsiko! Armairu barru-barruan kapa bat aurkitu dugu, Bixente txikiak Antoine Valerorentzat, zapatari umilarentzat ekarri duena. Baina, bukatu gabe dago-eta! Ikusten denez, Bixente txikiak ez daki zein marrazkiren txanda den. Lagundu egingen diogu, bada, segida logiko hau osatu eta 2 Anexoan aurkituko duzuen kapara eramanez. Txikienek "gomets" delakoak erabilita egin dezakete jarduera hau.



Forma geometriko hauek kolore desberdinez ere pinta ditzakegu, gogoan izanda zein margoren txanda den.

Umeen adinaren arabera, edukiak zailagoak egingen ditugu, bai segida logikoen aldetik, bai eta matematika-jardueraren aldetik ere.

5. Jostaketa ikasgelan izan ohi dugun zurezko blokeekin egin dezakegu, eta kontzeptu desberdinak landu.

Oihal zati handi batez, Antoine Valeroren kaparen antzeko bat egingen dugu. Umeek bloke gorriak kaparen gainean jarri beharko dituzte, berdeak kanpoan, horiak kaparen barnean...

Ondoren, irakasleak ekintza bat emanen dio bloke bakoitzari: biribil horia – laster egitea; karratu berdea – eseri; laukizuzen gorria – gelditu... eta umeek ekintza horiek egin beharko dituzte, kapatik irakasleak ateratzen duen blokearen arabera.

Bi erraldoi ergel, handi bezain txepel.

Istorio honetako printzesak jostaketa eginazten dion lehenbiziko proba honako hau da: badira bi erraldoi, Jauregiko harresia eraitziko dutela mehatxuka ari direnak; horietan menperatu behar ditu jostaketa. Hori lortuz gero, printzesak, sari gisa, Jauregia bizitzeko aukera emanen dio.

Denboraren hasieratik badira erraldoien aipamenak kontakizunetan. Oro har, izaki ikaragarri gisa aurkezten dira, beren burua elikatzeko umeak, zuhaitzak edota artzain gazteak jaten dituztenak... eta, oroz gain, borroka egiteko beti prest egoten direnak, gerrarako batik bat.

Ipuinetan ere, jakina, leku zabala izan dute erraldoiek. Eurak izaten dira protagonista, hain zuzen ere, tradiziozko nahiz gaur egungo istorio anitzetan, mundu osoko kulturetako elezaharretan: Goliat, Pantagruel, Gulliver, Gargantua...

Zuek ere nahi al duzue hazi, eta hazi, eta hazi, ikastetxeko erraldoiak bihurtu arteraino?

Zer iruditzen zaizue, hori lortzeko, gure eskura ditugun ikus-entzunezko tresnak erabiltzen baditugu?

1. Lehenik eta behin itzalak egingen ditugu.

Materiala oso erraza da: proiektorea edo bonbilla eta oihal zuri bat.

Egiaztatuko dugunez, oihaletik hurbil jartzen bagara, gure profila islatuko da oihalean, eta urruntzen bagara, profilaren tamaina handitu egingen da, nabarmen. Hau ikusita, esperimendatzen ahal

dugu forma eta tamaina desberdinekin.

Zelofan papera ere erabiltzen ahal dugu. Esate baterako, kartoiarekin batera erabilia, kolorezko itzalak lortzen ahal dituzue. Handienek, gainera, errotuladorez edo azkazalak pintatzeko margoaz margotzen ahal duzue zelofan puska baten gainean, zeuen diapositibak egiteko eta gero horiek proiektatzeko.

Horrez gain istorio txikiak asmatzen ahal dituzue, erraldoiak protagonista hartuta, noski!

2. Orain zailxeagoa: ... argazki makina erabiliko dugu!

Hasteko aurpegiaren erretratuak eginen ditugu elkarren artean. bata besteari. Argazkiak DINA 4 tamainan inprimatuko ditugu eta, gainean, azetato bat jarriko diogu. Errotuladore iraunkor batez, "gomets" delakoez, aldizkari-mozkinez, etab., gure aurpegia erraldoi batena bilakatuko dugu. Amaitzeko, mural bat egin dezakegu eta "Erraldoi saldoa" izena jarri.

3. Eta orain, zer moduz *flip-book* edo *folioskopio* bat egiten badugu?

Egia esateko, hitz arraro horrek ez du beste munduko ezer esan nahi. Liburuxka bat da, irudi asko dituena. Irudi horiek aldaketa txiki bat dute orri batetik bestera. Orriak azkar pasatzen badira, irudia mugitzen dela ematen du.



Irudiak azkar pasatzean, pelikula txiki bat ikusten ari garela ematen du. *Flip-book* horren alderdi interesgarria zera da, ez duela ekoizpen handirik edo material zailen beharrik, aski baitira papera, arkatza eta gure hatza.

Ikasle bakoitzak bi erraldoiren arteko borroka marraztu lezake. Irudia osorik edo gorputz atalen bat marraztu genezake: ireki eta ixten diren begiak, luzatu eta biltzen diren besoak edo hankak... marrazki zailagoak egin ditzakegu umeen adinaren arabera.

Ondoren, marrazkiak jarriko ditugu bata bestearen ondotik, eta era horretan, borrokaldia ikusi ahal izanen dugu erabat bizia bailitzan. Gogoan hartu, *folioskopio* efektua lortzeko, orrien tamaina oso erraz erabiltzekoa behar duela izan. Koartilaren erdia beharko luke gehienez.

4. Eta honenbestez, iritsi da... bideo kamara hartu eta... zine-zuzendari bihurtzeko unea!

Lehenbizi erraldoi bat eraikiko dugu. Material desberdinak erabiltzen ahal dituzue: paper jarraia, lurrean jertseak jarrita, kartoia... zuek zeuek ere erraldoi bihur zaitezketek, mahai gainera igo eta oihal luzez jantzita.

Ondoren plano desberdinak grabatuko ditugu:

- lehen plano (aurpegia eta sorbalda)
- plano amerikarra (burutik belauneraino)
- plano osoa (gorputz osoa)
- plano orokorra (gorputz osoa eta inguruan duena)

Adinaren arabera, sekuentzia osoak grabatzen ahal ditugu, “enkode” desberdinak eginez jolastu... zuen burua imajinatzen al duzue, alfombra gorriaren gainean zabilatzatela?

Buru gogorreko basurdea, dotorea eta sudurluzea.

Printzesak joskinari agintzen dion bigarren proba zera da, baserriei eraso egin eta uztak hondatzen dituen basurde gaizto bat akabatzea. Saria, jauregian bizitzeaz gain, erabaki garrantzitsuak hartu ahal izatea izanen da. Aukera aparta, inondik ere, joskin xume batentzat.

Basurdeak, izan ere, ikaragarriak baitira. Luisak eta Marisak beti pentsatu izan dute hainbat basapizti nahastuta sortzen direla basurdeak: txerri muturra dute, elefante letaginak, eta hartzak bezalako larru iletsua.

Hiru basurde mota daude, hirurek ere oso izen bitxiak dituztenak: *s.s. scrofa*, *s.s. meridionalis* o *s.s. algira*. Ez dakigu Bixente txikiak aurre egin behar zion basurdea zein arrazatakoa zen, baina eman dezagun *s.s. scrofa* izeneko arrazakoa zela, gure inguruko basoetan aurkitzen ahal dugunaren arraza berekoa, alegia.

Agian ez dakizue baina, basurdeak ez du ongi ikusten eta, beharbada horregatik, usaimena eta entzumena oso zorrotzak ditu.

Gaztelaniaz izen bereziak dituzte familia honetakoek (jabalí, jabalina, jabato o rayón (cría de jabalí), bermejo (jabalí de un año), macareno (jabalí anciano y torpe), escudero (jabalí que acompaña al jabalí macareno)... eta euskeraz ere ez dira gutxi: basurde, basa-txerria, saturde, basurde-kumea, aketza (basurde zaharra) basa-ardia (basurde-emea)...

1. Hasteko, basurdeari buruzko hainbat galdera egin genitzake:

- nola sortzen den
- non bizi den
- zein beste basapizti bizi diren harekin
- zer jaten duen
- zein diren haren etsaiak
- nola komunikatzen den gainerako taldekideekin

2. Orain, hobeki ezagutzen dugu eta, maketa bat egiten ahal dugu egunkari-paperaz, plastilinaz, biltzeko paperaz, patioko harri-koxkorrez, zuhaitz hostoez... eta bertan irudikatzen ahal dugu basurdeen bizilekua eta ingurua.

3. Ondoren, adinaren arabera, antzeppen bat egin daiteke, ikasle bakoitzak basurdearen taldeko kide baten rola hartuta. Ikaskide guztion artean basurde-taldea osatuko dugu, eta talde horren egun bateko bizimodua antzetzeko dugu, eta imajinatu ere, era guztietako abenturetako protagonistak direla imajinatzen ahal dugu.

4. Basurdearen apatxa ikusteko modukoa da, eta haren oinatzari ere erraz antzematen zaio.



Dibertigarria litzateke gure oinen eta eskuen aztarna marraztea DIN A3 paper batean, eta ondoren moztu eta ikasgelan barna zabaltzea, bideak eta ibilbideak osatuz. Haiei jarraitu ondoren, ikasle bakoitzak gustukoena dituen oinatzak aukeratuko ditu eta zein ikaskideri dagozkion asmatzen saiatuko da. Gainera, mural batean jar genezake gure oinatza eta gure izena, eta basurdearenak ondoan, konparatzeko. Jarduera amaitzeko, mural erraldoi bat egin genezake, beste animalia batzuen oinatzak erantsiz.

Horra gure adarbakarra: eskularruak, tiranteak eta ilea marra.

Bixente txikiak gainditu behar zuen hirugarren proba honako hau zen: nola edo hala, adarbakar bat ehizatu behar zuen, bidean topatzen duen edonori eraso egiten baitzion. Ordainetan, jauregian bizitzeaz gain eta erabaki garrantzitsuak hartzeaz gain, joskinak, nahi izanez gero, printzesarekin ezkonduko zen.

Adarbakarra izaki mitologikoa da, zaldi zuri baten gisan irudikatu izan dena, hankak antilope batenak, akerrarenaren antzeko bizarra, lehoi edo basurde buztana eta, kopetan, adarra kiribildua dituena.

Haren sorrera, mitologiako beste izaki anitzenaren antzera, greziar mitologian da. Zeusek, umetxoa zela, Amalthea izeneko ahuntz baten bularretik edoski zuen. Ahuntz hori, uste denez, izaki mitologikoa izan zitekeen, kopetaren erdian adarra zuelako. Nonbait, Zeusek, egun batez, adar hura hautsi zuen, eta bertatik izugarritzko janari pila atera omen zen. Horregatik, adar horri, aurrerantzean, *oparotasunaren adarra* deitu zioten, eta garai klasiko eta barrokoan margolan eta apaingarri anitzetan irudikatu zuten. Zeus, bere aldetik, esker onez eta bere maitasuna adierazteko, ahuntza izar bihurtu zuen, eta *Capella* izena eman zion izar hari.

Gogoeta anitz erabili izan da adarbakarraren legenda sorrarazi zuen animalia izaerari buruz. Azalpenik sinesgarrienaren arabera, "Ctesias" izeneko greziar sendagile batek, Indiako errinozeroa deskribatu nahian emandako azalpenetan sortu zen, jakina denez, lau tona ere izan ditzakeen animalia horrek adar bakarra baitauka mutur gainean.

Gure istorioan ere adarbakar bat ageri da, aski berezia bera, eskularruak, ilea marra-erdian duela orraztua eta tiranteak eramaten baititu. Zer iruditzen zaizue, zuek ere zuen adarbakarra egiten baduzue?

1. Berreskuratutako materialez: komuneko paperaz, esne-brikak, egunkari-papera, zilar-papera eta ziri bat erabiliz sor dezakegu gure adarbakar-txontxongiloa. Adinaren arabera, zailagoa edo errazagoa egin dezakegu. Jantzera ere diseinatzen ahal diogu: eskularru eta bi tiranteekin, txapelarekin eta jakarik gabe, galtzerdiez eta kolorerik gabe, amerikana gabe eta labanarekin...

2. Gu ere adarbakar bihur gaitezke. Egunkari paperaz eta margolari-zintaz adar bat egingen dugu, alde zabaletik goma bat pasatuko dugu eta buruan jarriko dugu. Guztiok gara adarbakarrak eta lasterka, trostan, jauzika, laukoan edo lasai ibiliko gara batetik bestera. Erritmoa pandero batez marka daiteke.

Tibor Harsányiren adarbakarraren musikaz mugituko gara, irakaslearen aginduei kasu eginez: egarri dela, pozik, triste, haserre... adarbakarrak berezkoak dituen ezaugarrien arabera ere lan egin

dezakegu. Nonbait, adarbakarra bizi-bizi mugitzen da, erasokorra da, bakartia, izua eta indartsua. Musika gelditzen delarik, adarbakarra ere gelditu egiten da eta musika berriz ere hasten delarik, mugimendua hasten da berriro.

Ipuineko musikaz gain, beste musika batzuk ere erabil ditzakegu, umeei sentsazioak nahiz emozioak... irudikatzen laguntzeko egokiak iruditzen zaizkigunak.

Amaitzeko, ikasle bakoitzak irudikatzen ahal du nolako ahalmena duen bere adarrak: erre, izoztu, bikoiztu, isilarazi... eta txandaka, euren ikaskideak menpean jartzen saiatuko dira.

3. Baina, zein basa-piztiarekin du harremana adarbakarrak? Ikaskideen erdiak ez dira adarbakarrak izanen, oihaneko beste animaliairekin batzuk baizik.

- zer-nolako harremana dute euren artean? (pertsonek)
- zein arazo sortzen da elkarbizitzan? (gatazka)
- nola konpontzen da arazoa? (konponbidea)

4. Zer iruditzen zaizue guztion artean adar erraldoi bat egiten badugu?

Egunkari-papera eta margolari-zinta beharko ditugu, ausarki.

Irakasleak adarra erabil dezake ikasleak "hipnotizatzeko". Irakasleak adarrekarekin egiten dituen mugimenduak ikasleek errepikatuko dituzte.

Ondoren, ibilbide bat eratzten ahal dugu, hainbat traba jarrita, umeei gaindi ditzaten. Ibilbidea osatzea lortzen duen ikasleak, saritarako, "adarbakarraren adar handia" jasoko du.

Haren magiazko ahalmenei esker, beste umeen gaineko agindua izanen du irabazleak, honako hitz hauek esanez:

"Firulin, firulan.... (ahate, euli, kisugile...) bihurtuko zarete bertan!".

Eta ikasleak, magiaz bezala, ikaskide horrek proposatutako rola hartu beharko dituzte.

5. Orain zuek imajinatu animalia!

Ikusi duzuen moduan, adarbakarra ez da egiazko animalia: antilope-hankak ditu, aker-bizarra, lehoi edo basurde-buztana eta adar kiribila kopetan. A ze nahasketa!

Zer moduz zuek ere zeuen animalia mitologikoa marrazten baduzue? Nola du izena? Nola mugitzen da? Zer iruditzen zaizue animalia hauekin guztiekin zirku baten desfilea antolatzen badugu?

Printzesa morea,
gauzak aski argi dituen.

Benetan, zuhaitz gorritik sortzen den ipuin honetako printzesa gauzak oso argi ditu, eta askatasun

aski ere bai, erabakiak bere kabuz hartzeko. Berak hitz egiten du Bixente txikiarekin, eta berak hartzen ditu bere erabakiak. Bai zorte onekoak!

Bai horixe! Izan ere, ez baita halakorik gertatzen *maitagarrien ipuinetan!* Maiz, gurasoak izaten dira euren alaben eskua jauregian agertzen den lehenengoari ematen diotenak.

Jatorrizko ipuinean, erregea da joskinarekin tratua egiten duena eta bere alabaren eskua hari eskaintzen diona. Grimm Anaien Joskin Ausarta ipuina *maitagarrien ipuinak* literatur generokoa da, eta genero baikor horretan ona beti gaiztoari gailentzen zaio, eta xumeak beti barregarri uzten du harroa. *Maitagarrien ipuinetako* heroiek eta heroinek zoriona lortzen dute beti, proba eta zailtasun anitz iragan ondoren. Magia eta fantasiaz betetako istorioak dira, lilura ahaztezina uzten dutenak, bizi guztian irauten duen lilura eta belaunaldiz belaunaldi iragan daitekeena, ahozko edo idatzizko kontakizunetan.

1. Hasteko, ipuinaren argumentua kontatu daiteke eta taldeka beste amaiera erabat desberdin bat asmatzeko proposatu. Lehen Hezkuntzako lehen zikloarekin, gainera, joskinak gainditu behar dituen hiru probak aldatzeko proposatu liteke.

Bestela, joskin berezi samarrak bihurtzeko. Kontua izanen litzateke jatorrizko ipuineko hitzak jostea, eta jantzi/istorio bat eratu, Grimm Anaiena ez bezalakoa, baina *maitagarrien ipuinek* dituzten ezaugarri berberak dituenak. Txikiarekin, aski izanen da istorio bat asmatzea, bere hasiera eta amaierarekin.

Hona hemen zenbait hitz: printzesa, joskina, esne-gaina, eulia, ogi-xerra, erregea, estalpea, erraldoia, basurdea, adarbakarra, harria, ezkontza...

2. Ausarta joskina!!! Bertsioan, joskin gazteak Bixente txikia du izena baina, beste izenik etortzen al zaizue burura harentzat? Idatzi oihal puska batean eta saiatu hizkiak berriz pasatzen gustukoa duen koloreko hariak. Beharbada brodatzen ikasteko lehen urratsa ematen ari zarete!

3. Dibertigarria litzateke aho-korapilo bat idaztea gure Bixente txikiaren izenaz. Ea zerbait orijinala eta, batez ere, ahoskatzen zaila asmatzen duzun.

Hona "txikia" hitzarekin errimatzen duten hitz zenbait: handia, pipia, zerria, euria, lodia, hizkia, lotia, ziria... Luisari eta Marisari honako hau bururatu zaie:

Bixente joskin txikiak, bere gerriko lodiaz, beldurtzen ditu euliak.

4. Beste aukera bat da ipuineko esaldiak aukeratzea, hitzen bat kentzea eta ikasleak saia daitezen hitz hori asmatzen eta idazten. Hona hemen zenbait adibide:

- Han zeuden erraldoiak, erabat (lo), eta joskina (harrika) hasi zitzairen.
- Joskina (mundua) korritzera joan zen.

- Adarbakarrak bere (adarra) sartu zuen zuhaitzean eta joskina printzesarekin ezkondu ahal izan zuen.

5. Dibertigarria izan daiteke umeeek “ausarta joskina” idaztea baina, erne! Ez arkatzaz, euren gorputzaz baizik. Ikasgelaren zorua izanen da orria, eta ume bakoitzak letra bat egingen du. Ez galdu argazkia ateratzeko aukera baina, jakina, aski goititik egin beharko duzue!

6. Badakigu gure printzesa moreak gauzak aski argi dituela baina, imajinatzen duzu nolakoa den? Dibertigarria litzateke pentsatzea istorio honetako protagonistak ez-ohiko samarrak direla.

Zer moduz printzesa urdinak beti izanen balu zotina?

Eta joskin ausartak baldin balu sudur aparta?

Eta adarbakar berdea, beti dariola lerdea?

Batuta-orratza,

hau da hau martxa!

Kontzertuaren hasieran, zuhaitz gorriak bere fruituak ematen dituelarik, **Luisak eta Marisak** ez dakite zuhaitz-adarretan agertzen den azken gauza jostorratza edo batuta bat den.

- Ez al zaizu handi samarra iruditzen jostorratza izateko? – dio Luisak.

- Ez al zaizu iruditzen, batuta izanez gero, ez lukeela hari pasatzeko zulo txo hori izanen? – dio Marisak.

Ez dira ados jartzen eta, azkenik, batuta-orratza deitzea erabaki dute. Baina eurek ez dakitena zera da, batuta-orratz hori, egun batean, sorgin batena izan zela.



Joskinarentzat, jostorratza berebiziko tresna da, noski: brodatzea, galtza-barrenak hartzea,

gurutze-puntua egitea, galtzerdiak pasaratzea... orkestra-zuzendariarentzat ere, noski, ezinbesteko tresna da batuta: sarrera emateko, konpasa markatzeko, azentuak nabarmentzeko, musikagileak partituran jarritako oharrak aurrera eramateko, etab.

1. Zer moduz orkestra-zuzendari bihurtzen bagara? Zuek ere zuen batuta egin dezakezue, egunkari-papera edo bestelako orri bat bildu eta luze-luze eginda. Muturra egiteko eta heldulekua markatzeko, margolari-zinta erabiltzen ahal duzue. Batuta egina dugu, baina, orain, zer zuzenduko dugu?


2. Kontzertu egunean izan zenuten, bada, zortzi instrumentuz osatutako ganbera-orkestra entzuteko aukera. Hura zortzikotea zen eta, orain, zuei, ganbera-orkestra desberdinak osatzeko proposatzen dizuegu: boskoteak, zazpikoteak... baina perkusio-instrumentuak bakarrik erabilia. Gainera, zuek zeuek eginen dituzue tresna horiek, berreskuratutako materialak erabiliz:

- bi edari-lata huts, dilistez beteak, *marakak* izan daitezke.
- Jogurt-ontzi zenbait hartu eta, hari batez lotuta, *txalko* bat izanen dugu,
- Kakao-potea eta puxtarri bat gainean tenkatuta, horra *danborra*.
- Hegaluze-lata handi bat eta ahoa kendu zaion puxtarri batekin, *danbor txikia*.
- Gaseosa-tapaki zapalduak eta hegaluze-lata txikiak, denak batera burdin hari batez pasatuak, hots handiko *arrastelu* bihurtzen dira.
- Kartoi-kutxa ertain bati ongi tenkatutako gomak jartzen badizkiogu gainaldean eta azpialdean, *erresonantzia-kaxa* ederra lortuko dugu.

“Baketak” edo jotzeko makilak egiteko arkatzak, zurezko koilareak (zaliak), puntua egiteko orratzak, erregelak...

Musika-tresna ikusgarriena, berriz... *huri-makila* izan liteke!

A. Daratuluarekin zulatu eta sartu ziriak tutuan (a). Ziriek pareta bakarra zeharkatzen dute (b). Egurra kartoiarekin elkartzen den tokian eranskailu tanta bat jarriko dugu, egitura indartzeko (d).



B. Erreparatu zirien kokapenak eskailera kiribildu edo karakol-eskailera baten antza duela (**j**). Tutuaren barnean, zurezko makilek bidea trabatuko diete haziei (**b**).

C. Moztu kartoizko tututik ateratzen diren ziri-puskak (**c**).

D. Marraztu kartoi batean tapakiak eta moztu. Itsatsi haietako bat tutuaren ahoan (**e**) (**f**).

E. Euri-makila luzeagoa egin nahi baduzu, nahi adina tutu lotzen ahal dituzu. tresna honetan hiru tutu erabili ditugu, eranskailuaz eta kartoizko uztai batez lotuta (**g**).

F. Tailarinak edo bestelako pasta mota bat hartu eta txikitu (**h**). Sartu puska horiek tutuan eta itxi aho hori kartoizko beste tapakiarekin (**i**).

G. Musika-tresna hau frogatzeko, tutua poliki irauli besterik ez duzu.

H. Azkenik, tresna apaintzeko, egunkari-paper puskek busti eranskailu zurian eta estali tutua horiekin. Utzi idortzen egun batez eta zure gustuaren arabera margotzen ahal duzu.

Orain bai, orain ganbera-orkestra osatu dugu. Prest ditugu instrumentuak eta batutak.

Txandaka, batzuk zuzendari eta besteak musikari izanen gara. Hori bai, musikariek beti zuzendariak agintzen duena egin behar dute. Honek partitura aurrean izanen du, *ad libitum* jartzen duena, alegia, nahi duena egin dezakeela: hasi, amaitu, gogorrago, apalago, arinago, motelago...

2. Hainbeste tresna egin dugunez, ahal den etekinik handiena ateratzen saiatuko gara. Dibertigarria litzateke itsu-mandokan jolastea honako lelo hau esanez:

- Joskin, joskin, zer galdu duzu?

- jostorratza eta haria.

- Ba zazpi euli akabatu eta aurkituko dituzu.

Ikasle bakoitzak, bere instrumentua joz, ikasgelan barna ibiliko da, euli bat hegan bailitzan. Joskinarena egiten duenak, begiak estalita, haietako zazpi ehizatu behar ditu. Euliak, harrapatzen dituztelarik, arbelera erretiratzen dira. Joskinak zazpigarrena harrapatzen duenean, honako hau oihukatuko dute zazpi euliek:

- GERRIKO!

Eta gainerako guztiak lurrera eroriko dira elkarren gainean ziplo, hankaz gora, eta erabat isilik geratuko dira. Kontua da euli bakar baten hegaldia ere ez entzutea.


3. Erritmo joko

Kartoi mehe plastifikatu batean, era grafikoan kodifikatutako erritmo sail bat eratuko dugu.

Ume bakoitzak harri-txingorrez betetako bi ontzi zilindriko izanen ditu, esku bakoitzean bana. Zenbait kartoi mehe aukeratuko ditugu eta umeek era honetan deskodifikatuko dituzte erritmoak:

Zuria: eskuin-eskuaren mugimendu 1

Beltza: ezker-eskuaren 2 mugimendu.



4. Entzutezko diskriminazioa.

Tibor Harsányi-aren partituran agertzen diren soinu anitz, maiz, identifikatzen zailak dira. Entrenatu gaituzen, bada, esaterako, klarinetarekin!

Pipitaki honekin hasiko gara:

*“Beltza eta fina
Luzea eta zilarreztatua
Haize dabilkit barnean
Itsasontzi tutua banintz bezala”*

Nor naiz?

Pista 1: haize-zurezko instrumentua naiz

Pista 2: Ez naiz txirula eta ez saxofoia ere.

Pista 3: Hauxe naiz K L _ R _ N _ T _ _ .



Instrumentuari buruz hitz egiteko unea da: nolakoa den, zein ezaugarri dituen, nola definitu genezakeen haren soinua...

Ondoren, irakasleak hainbat soinu grabatuko ditu CD batean, tartean klarinetarena dela. Jarraian, 2 Eranskinean aurkituko dituen koadro zuriak beteko ditu, lehen grabatutako soinua definitzen dituzten ilustrazioekin. Beste aukera bat zera litzateke, 3.2 Eranskinean aurkituko duen txantilo osatua erabiltzea,

eta CDko grabaketa egokitzea proposatutako instrumentuen arabera.

Kontua da “musika-bingoa” jolasean aritzea.

Umeei kartoiaren fotokopia bana emanen diegu, eta horrekin batera, paperez egindako fitxak.

Hasi da jolasa!

Irakasleak CDan grabatutako zatiak jarriko ditu banan-banan, eta umeei fitxak kokatu beharko dituzte dagokien tokian. Kartoa beteta dagoenean, “BINGO!” hots egingen dugu. Azkenik, fitxak kendu eta guztion artean kartaia interpretatuko dugu, musika-partitura baten moduan.

Identifikatu beharreko instrumentua aldatu daiteke, irakasleak egoki deritzon eta landu nahi duenaren arabera.

5. Kontzertu egunean, zuen laguntza funtsezkoa izanen da joskinak printzesak agindutako hiru probak gainditzea lor dezan.


Bixente txikiak zazpi euli hil ditu zartako bakar batez baina...

- zuen punteria ona beharko du harriez erraldoiak jotzeko.



Gliss enboto tx. Blocka edo danborra


- ahate, ardi eta astoen hotsak beharko ditu basurdea nahasteko eta estalpean ixtea lortzeko.



Kua kua beee kua kua bee Hi hoo hi hoo


- zuen ahots zoragarriak beharko ditu adarbakarra hipnotizatzen.

A.




Musical score for section A, consisting of two staves in 3/4 time. The melody is written in treble clef. The lyrics are: A dar ba kar zu ri a dar ba kar zu ri a dar ba kar zu ri a dar ba kar zu ri za toz gu ga na!

B.



Musical score for section B, consisting of three staves in 4/4 time. The melody is written in treble clef. The lyrics are: Za toz ho nat za toz ha rat za toz ho nat za toz gu ga na! Za toz ho nat za toz ha rat za toz ho nat za toz ber ta ra!

C.



Musical score for section C, consisting of one staff in 2/4 time. The melody is written in treble clef. The lyrics are: A rra io za pu tza!


Besterik gabe, agur, eta... kontzertuan goza ezazue!

1. ERANSKINA
Gerrikoaren zatiak















2. ERANSKINA

Antoine Valeroren kapa



3. ERANSKINA
"Musika-bingoa"

Zuentzat, irakasle horientzat...

Ipuin bat emanen didazu?

Istorio batek kontatzen duenez, herri batean, arazoren bat zuten aldiro, azti bati deitzen zioten eta hark, haiei lagundu eta konponbidea bilatzeko, urruneko leku ezkutu bat bilatzen zuen oihanean, han sua piztu, otoitz bat egiten zuen, eta arazoa konpondu egiten omen zen. Urteak pasa eta, herri hark, berriz ere, beste arazo bat zuenean, beste azti bati hots egiten zioten, baina hark ez zekien zein otoitz egin haiei laguntzeko. Orduan, urruneko leku ezkutu bat bilatzen zuen oihanean, han sua pizten zuen, eta horrenbestez arazoa konpondu egiten zen. Urteak igaro eta, herriak, atzera ere, beste arazo bat zuenean, azti berri bati hots egiten zioten. Honek ez zekien ez otoitz egiten ez sua pizten ere, baina hala ere, urruneko leku ezkutu bat bilatu zuen oihanean, eta arazoaren konponbidea aurkitu zuen.

Urte askoren buruan, beste azti bat agertu zen, ez otoitz egiten, ez sua pizten ere ez zekiena, eta oihaneko urruneko leku ezkutua non zen ere ez zekiena, eta hala eta guztiz ere, arazoa konpondu zen, orduan ere. Azti honek istorioa kontatzen besterik ez zekien, baina aski zen laguntzeko.

Ana Padovani (kontakizun honexekin eman zion hasiera kontalariak bere tailerretako bati)

http://tags.idoneos.com/Ana_Padovani

Konta ieza dazu berriz ere!

Gaueko ipuinek eginkizun garrantzitsua dute lo egiteari dagokionez. Umeen psikologo ospetsu Bruno Betelheimen arabera, ipuin bat behin eta berriro kontatzea umeen sakoneko behar bati erantzuten dio, eta segurtasunaren beharra da. Kontakizunaren errepikapen beti ber-berak bere unibertso txikia ordenan dagoela adierazten dio umeari, eta beldurrak eta gaueko munstroak uxatzeko modua da. Umeak zuzentzen badizu okertzen zarenean, zeragatik da, behar duelako zuk esatea den-dena aurreko egunean bezalaxe dagoela, ezer ez dela aldatu eta, beraz, lasai lo egin dezakeela. Ez uko egin ipuin ber-bera kontatzeari, horixe baita umeari lasai loak hartzen laguntzeko bidea.

(Halaxe erantzun zion pediatrik batek honako galdera honi:

- Gure umeak ipuin ber-bera kontatzeko eskatzen dit gauero lotarakoan. Zergatik egiten du hori? Ez al da komeni beste ipuin batzuk kontatzea?

http://www.pediatraldia.cl/01NARTICULOS08C/Resuelva_duda_del%20-Sueno.htm

Bazen behin... ;eta hau hala bazan...

Bazen behin... halaxe hasten dira ipuin zahar anitz. Kutun bat bailitzan, edo magiazko hitz horien atzean sorginkeria baten itzala bailitzan. Horiek esan orduko, narratzaileak eta entzuleak beste leku batean daude, hitz horien indarrez bidaian abiarazi eta, egungo errealitatetik aterata, leku eta denbora balizko batera joanen balira bezala, aukera guztiak zabalik dauden leku eta denbora batera, gauzarik harrigarrienak ere gerta daitezkeen mundu batera.

(...)

Istoria kontatu ondoren, eta pertsonaiek dematik gailen ateratzeko gaingitu behar izan dituzten gorabehera harrigarriak jakin ondoren, oso esapide zabaldua dugu kontakizuna ixteko eta guztiok ondorengo errealitatean atzera ere kokatzeko: "...eta hau hala bazan... (sar dadila kalabazan), eta hala ez bazan... (atera dadila... herriko plazan)". (Aldaera anitz ditu).

"Bazen behin" eta "hau hala bazan..." ipuinen hasiera eta amaiera adierazteko euskaraz zabalduenak ditugun esapideak dira, baina beste anitz ere badira. Gaztelaniaz ere berdin "habia una vez" eta "fueron felices y comieron perdices" esapideak dira ohikoena, baina beste asko ere badira, Ramón Menéndez Pidal adituak esan zuenez, tradiziozko kultura aldaeretan bizi da, alegia, ugaldu egiten da. Eta lurralde edo narratzaile bakoitzak bere aldaerak ditu.

Ipuinei amaiera emateko esapideetan, oro har, errealitatera itzultzeko gogoia izaten da, gaur eta hemen kokatzekoa, bertatik atereak baikin ipuineko lurralde liluragarrian sartzerakoan. Hori dela eta, ohikoak izaten dira esapide errimatuak, eta tartean ere, ez da falta izaten zapuzkeriaren bat ere esatea, edo hitz zirikatzailearen batzuk, gure "itzuleraren" sentimendua islatzeko-edo.

<http://www.funjdiaz.net/folklore/07ficha.cfm?id=2413>

(...)

• Y colorín colorete, el cuento se hizo cohete.

• Colorín colorao, cuentecito rematao, y el que no alce el culo se lo ha chamuscao. Yo, que lo alcé, no me lo chamusqué.

• Cuento contaao, cuento acabaao, por la chimenea se va al tejao, y del tejao al pozo para que no lo escuche ningún mocoso.

• Y se acabó el cuento con ajo y pimiento.

• Y vivieron felices y comieron perdices, y a nosotros nos dieron con el plato en las narices.

Ipuin amaierak:

- Haiek han eta gu hemen, gure kontuak Flandesen, gure txepetxak bizkarrean hezurra, eta gure ipuin guztia gezurra.

- Egia ala gezurra, begi bien artean sudurra.

-Egia bada sakelan sar. Gezurra bada, ez golkoan har.

-Hala bazan ezpazan, Bitoriko plazan, saguzaharrak dantzan.

- Egia, egia, ohe azpian txerria.

(...)

... esaten denez, ongi da ongi amaitzen dena, eta horrenbestez, ohiko kontalari anitzek ez diote garrantzirik ematen ipuinaren hasierari, baina eginahalak egiten dituzte amaiera txukuna emateko.

(...)

... Formula horiek, hizkuntzaren jolas txikiak izateaz gain, metaforazko giltzen lana egiten dute, eurek ireki eta ixten dute mundu paralelo bat, denbora-espazioan mugagabea, non zernahi gerta daitekeen, eta zeinetik narratzailea aparte samar egoten saiatzen den, zenbait hitz erabiliz. Ipuinek ekartzen diguten garai horretan, diotenez, eguneroko gauzak eta naturaz gaindikoak eskuz esku ibiltzen ziren eta gazteenek ederki antzematen diote horri, nonbait, magiazo esapide horiek entzun eta, atzerako jauzia eginez, eboluzio-tarte bat irekiko balute bezala, begiak txilotu, ezpainak estutu eta belarriak zorrozten dituztelarik.

www.weblitoral.com

Juan Ignacio Pérez

Eta amaitzeko...

IPUINAK KONTATZEA EZ DA ARTEA

José Miguel Castro

Kantabriako Unibertsitateko Literatura irakaslea

Azken bolada honetan ipuin kontaketa arte bat delakoa zabaltzen ari da, eta hori "ongi" egiteko prestakuntza berezi bat behar dela. Horrela, ipuinak kontatzea antzerki edo ikuskizun bat muntatzearekin batzen da eta nolabait artifizial bilakatzen. Hala ere, "oraindik antzina ez dela, bazen garai bat, gure oroitzapenetik ezabatzen hasia, zeinetan guzti-guztiak ziren ipuinak kontatzeko gai... Ez ziren aktore ez antzerkigileak... Langileak, baserritarrak, etxekoandreak ziren... Eta beren denbora eta maitasuna jartzen zuten gure zerbitzutan... Eta naturaltasunez kontatzen zizkiguten ipuinak, ziren bezalaxe..." Izan ere, ipuinak kontatzea guztiok dakigun eta egiteko gai garen komunikazio ekintza besterik ez da.

Ipuinak kontatzea ez da artea. Pertsona guztiak egin dezaketen gauza da. Norberak duen dohaina da: komunikaziozko eta hitzezko dohaina. Pertsona guztiak dute besteekin komunikatzeko gaitasuna, hurbiltasunean, istorio baten bidez.

Gauzak horrela, umeak ipuina kontatzeko eskatzen dienean ohartzen dira pertsona anitz badakitela kontatzen. Gauza arrunta da gizaki guztiok jaten, ibiltzen, hitz egiten... ikastea, eta horiek guzti horiek inongo ikasketa formalik, antolaturik gabe ikastea, etxeko giroan, berariaz eta arian-arian, oharkabean eta ezinbestez. Ipuinak entzun izana ere, aski da, eta hori bera ere ez da nahitaezkoa, egunen batean gu geu ere ipuin kontalari trebeak izan gaitzen.

Denbora asko ez dela, ahanzten hasiak garen garai batean, jende guztia zen kontatzeko gai. Amona aritzen zen iluntzean, arropa lisatu bitartean, eta orduak labur izaten ziren. Amak, lotarakoan, egunaren bukaera etsigarria gogo onez onartzen laguntzen zigularik. Aitak ere, bere istorioez, fantasiak janzten zueni ibilaldi arrunt bat. Ez ziren antzezleak, ordea. Gure aitonak edo izebak ipuinak kontatzen zizkigutelarik ez ziren antzezleri, ez zuten antzerkirik egiten. Ez ziren artista, eta beharrik ere ez zuten. Behin ere ez zuten Mantxungako Itxurazko Unibertsitatean matrikulatu beharrik izan, ez eta doktoretza ibiltaririk egin beharrik izan taula gaineko ahozkotasan prostatikoan, ipuinak kontatzen ikasteko. Langileak ziren, nekazariak, etxekoandreak, maisuak, funtzionarioak, merkatariak, lanean ari zirenak edo erretiroa hartutakoak, eta guri eskaintzen zizkiguten euren denbora eta maitasuna. Eskuzabalik partekatzen zituzten gurekin egunen batean haien barrenak astindu zituzten istorioak, oso ongi ezagutzen zituztenak, edo aldiro-aldiro asmatzen zituztenak. Eta berez ateratzen zitzairen moduan kontatzen zituzten: zuhurrak eta zalapartariagoak, zintzoak, larriak, lasaiak edo egonezinak jota, berritsuak, izuak, guztiak ere diferente. Hizketan aritzen ziren, keinuak egiten zituzten eta euren gisara mugitzen ziren, bestela ere egiten zuten moduan. Ez zuten artifiziorik edo gehiegikeriarik erabiltzen. Hezur-haragizkoak ziren, hurbilak eta maitagarriak, eta ipuina kontatzen ziguten beso-artean hartzen gintuzten bezalaxe. Urte gehiago zituzten, handiagoak ziren, indartsuagoak eta jakintsuagoak, baina ez ziguten ikuskizunik eskaintzen, eta ez ziguten eurak gehiago zirelako sentiarazten. Dohain bat ematen ziguten. Baziren hitz magiko batzuk, horiek esan eta, unibertso ezezagun bat irekitzen baitzen behin eta berriro, eta gu bertara sartzen ginen: "kontaidazu ipuin bat!", eta eskakizunak ia beti lortzen zuen helburua. Antzematen genien prest zirela. Ipuin bat kontatzea erabakitzen zutenean euren denbora guretzat zen. Eta gutxi izaten ginen: anai-arrebak, lagunak bat eta amona. Haren inguruan jartzen ginen, adi-adi.

Ondo-ondoan jartzen gintaizkion, haren begietako keinurik txikiena ere, haren bekainetako uzkurdurarik nimoena ere antzemateko moduan. Haren ahotsaren tonu-aldaketarik apalena sumatzen genuen. Berak gure grina ikusten zuen. Gure beldurra sentitzen zuen apur bat biltzen ginela ohartzen zelarik, eta orduan gehixeago beldurtzen gintuen. Tankera hartzen zion gure ezinegonari etenaldi batean, eta ezinegon hori areagotu egiten zigun, etenaldia pittin batez luzatuz. Guk erregu

egiten genion: "segi! segi!", eta bera dibertitzen zen, maite gintuen. Gure aiton-amonak ziren, gure osaba-izebak, gurasoak, guztiak ere, jende arrunta. Zirenik eta ipuin kontalaririk trebeenak ziren, eta ez genuen beste inoren beharrik.

Irudikatzen ahal dugu nolako desastrea izanen zen haietako baten batek istorio haietako bat jendaurrean kontatu behar izan balu, areto handiren batean. Edo apezak pulpitora igoarazi balitu hura kontatzera. Gaixoak, etxean bisitak zirenean, edo ohi baino jende gehiago zenean, ipuina kontatzeko eskaerak oroimena galarazten zien, eta berehala gogoratzen ziren bazutela premia larriko zereginen bat egiteko. Ez zuten halakoetan egin nahi izaten: ezin zuten, eta ez zuten beharrik ere. Gurekiko zuten komunikazio zuzena, hurbilekoa eta sakona zen, barne-giroan egitekoa, eta ezinezkoa zen bestela.

Ipuinak kontatzea ez da antzeztea. Ipuinak kontatzea ez da ikuskizuna egitea. Kikildurik, gonbidatuen gelan edo auditorio batean, jendaurrean, plazan edo antzoki batean, lotsaturik, ahotsa ia ez zitzaien zintzurretik goiti atera ere eginen. Osotara loturik, euren ohiko mugimendu eta keinuak murriztuko ziren, baldarrak eta xehetasunik gabeak izanen ziren.

Horixe gertatzen zaie orain pertsona askori, bortxaz eta nahi erara beharturik daudenean giro arrotzean hitz egitera: ikasgelan, irakaslea hor aurrean, euren ikaskide guztien aurrean, institutuan, unibertsitatean, ikastaro batean, ezezagunen aurrean. Hau da, publikoaren aurrean. Epaiturik, beldurturik, antzeztera beharturik, euren dohainak lotuta agertzen dira, euren buruaz zalantza egiten dute, eta istorioa ahaztu egiten ahal zaie. Tenkaturik daude, euren burua defendatu beharrez, ez dute antzerkian aritzeko gogorik eta, hortik aurrera, ez dira haiek beraiek.

Ahotsa goratu behar izaten dute urrundik entzun dakien, keinua nabarmenagoa egin handik ikus ditzaten, eta horrenbestez, galdu egiten dute berez duten hitz egiteko eta mugitzeko era. Kili-kolo daudela, euren burua barregarri ikusten dute, euren emozioak estaltzen saiatzen dira eta, azkenik, euren buruaren adabaki kaxkar bat besterik ez dira. Gero, ondorio txarra aterako dute, beti ere: ez dakite ipuinak kontatzen, edo ez dute horretarako balio. Ez zaie bururatzen zera pentsatzea, sentiberatasunik gabeko jendeak (hezitzaileak, ikastaro-emaileak, antzezle langabetuak), eta ezagutzarik gabekoak, edo arduragabeak, jarri dituela egoera horretan, euren ahalmena erabiliz, eta ipuinak kontatzen jarri dituztela egoerarik txarrean, eta inongo arrazoirik gabe jendaurrean ikuskizuna ematera behartu dituztela. Nahasi dituzte esanez ipuinak kontatzea antzeztea dela, eta ez eurek beren gisara, naturaltasun eta oparotasun handiz egiten ahal zuten hura egitea. Nahi erara galarazi zaie pertsona desberdinak, osoak eta ipuinak kontatzen oso ongi dakitenak diren aldetik aldarrikatzea euren burua. Orain gutxi arte edozeinek egiten zuen, baina hauetako askok ez dute aurrerantzean eginen. Beste batzuek, ordea, ikasi behar dutela erabakiko dute, beharbada, eta euren zoritxarrerako, laster egonen dira irakatsiko dienaren aurrean, haren ereduari so. Era honetan, guztiek naturaltasun handiz egin dezaketen gauza, une batetik aurrera "arte" dela erabakitzen da, eta "ongi" egin beharrekoa, alegia, era artifizialean. Horrek, noski, zera esan nahi du, ordura arte gaizki egiten zela, edo ez behintzat oso ongi.

Gure aurrekoek, beraz, gaizki egiten zuten?, edo ez oso ongi? Hortaz, ideia bat sortu eta hedatzen da: ipuinak kontatzea ez da jende guztiak egin dezakeen gauza, eta horretarako egokienak, propio prestatutako pertsonak dira: artistak, alegia. Horrenbestez, pertsona gehienak ezin ariko dira, teoriarik, berezkoa zuten jarduera horetan. Bertan behera utzi eta, azkenerako pentsatzen dute hori ez dagoela edonoren eskura. Ideia hau zabaltzeko interesa duten bakarrak sasi-artistak dira, plaza-jende kaxkarrak, eta eurek ere laguntzen dute gizakia kontsumitzaile hutsa (ipuin kontsumitzaile, kasu honetan) izatera mugatzeko hain hedatua dagoen joera horretan. Gure gizarteak hondatu egiten du gauzen berezko izaera. Errealitatea erailtzen du dena ikuskizun bihurtzeko. Norberaren joritasuna galarazten da. Galtzen da pertsonaren alderdi-aniztasuna. Gaitasunak eta aukerak murrizten dira erotik uko eginez. Ipuinak kontatzea artea delako ideia zabaltzen jarraitzea pertsonen berezkoa duten komunikatzeko gaitasun bat erauztea da, eta pertsona horiek ikusle ahal-gabea eta geldoa bihurtzea, alegia ikusle hutsa bihurtzea.

http://www.bgune04.net/euskara/arbela/22_23.htm

Bibliografía:

- El libro ilustrado de los cuentos de hadas*, Philip Mistry. Ediciones Omega, S.A., 2003
- Princesas olvidadas o desconocidas*, Philippe Lechermei y Rebeca Dautremerr, Edelvives, 2005
- Juego y desarrollo infantil*. Maite Garaigordobil. Editorial Seco Olea, 1990
- Juegos tradicionales en la Escuela Infantil*, Coor. Pilar López López. Amarú Ediciones, 1992
- Adivinancero*, Regino Etxabe. Ediciones Hiperión, 2004
- Juguetes infantiles*, Luisa A. Payno. Simancas Ediciones, 1995
- Prácticas de dramatización*, Tomás Motos Francisco Tejedo. Editorial La avispa, 1999
- Adivinanzas- Instrumentos musicales*, La Galera, 2007
- Artulugos e instrumentos para hacer música*, Fernando Palacios y Leonardo Riveiro, Opera 3, 1990

Diskografía:

- El sastrecillo valiente*, Agruparte. Colección La mota de polvo.
- Cancionero infantil del papagayo*, Recopilación Magdeleine Lerasle. Kokinos, 2003
- Cancioncillas del jardín del Edén*, Recopilación Nathalie Soussana. Kokinos, 2003

web:

- <http://blog.educastur.es/trotamusic/2007/05/29/construccion-de-un-palo-de-lluvia/>
- http://es.wikipedia.org/wiki/Sus_scrofa
- www.solohijos.com
- <http://es.wikihow.com/hacer-una-mu%C3%B1eca-de-hilo>
- <http://www.educar.org/infantiles/Juegos.htm>
- www.primeraescuela.com
- <http://es.wikipedia.org/wiki/Unicornio>